

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezero potentzialak 18-65 urte bitarteko pertsonak izango dira. Hauek, gailua erabili ahal izateko, internet sarbidea eta sarean mugitzeko gutxieneko erraztasuna izan beharko dute. Izan ere, lokalizatzailea non dagoen jakiteko aplikazio baten beharra izango dute eta hau telefono mugikorretan eta ordenagailutan izango da erabilgarria.

Adin bitarte honetako pertsoneri bideratu dugu, gehienetan hauek galtzen dituzten edo lapurtzen dizkieten ondasunak baliotsuak direlako eta ondorioz, bilatzeko premia handiagoa izaten dute. 18 urtez azpiko pertsonak ez da ohikoa soinean galtzeko moduko objektu baliotsuak eramatea, eta 65 urtetik gorakoek aplikazioa erabiltzeko zailtasunak izan ditzateke. Hala ere, gailua beste bezero mota batek erabili arren, erosle potentziala adin tarte honetan egongo dela iruditzen zaigu: helduak ez direnen tutoreak edo edota helduenen zaintzaileak.

Honela, helduenentzat (+65) erabilgarria izango da gure lokalizatzailea, hauek probabilitate gehiago baitituzte gauzak galtzeko; batez ere, alzheimerra edo bestelako gaixotasunak pairatzen hasiak direnek. Etxeko txikiarentzat ere baliagarria gerta daiteke, gauzak ahaztu eta erraz galtzeko joera dutelako. Beraz, hauek teknologia berriekin erlaziorik ez edo zailtasunak izanez gero, ingurukoek erabili ahal izango lukete gailua beren objektuak aurkitzeko.